

Donostia'n , 1957 Urrillak 9

Aita Pierre Laffitte'ri

Nere jaun ori :

Bidasoa'z beste aldera pasatzen naizen guzietan, "Herria" zure errebista txalogarria erosi ~~du~~ dut. Eta egia esan, oso pozik irakurtzen ditut ale guziak.

Baña emendik aurrera ez dut onela segi nai ; lumero asko galtzen baititut era onetara . Eta suskribitzea erabaki dut.

Ez dakit nola ordain ditoken , eta zure solkua bearko dut nai duzun moduan antolatzeko. Ni, ~~leen~~ esan dizudan bezela , sarri igarotzen naiz , eta alako batean paga dizaizuket. "Txillardegi" nauzu ni, berriki "Leturia'ren Egunkari ezkatua" argitara eman duena ; bearbada au etzaizu aski, ez baituzu sekula nere izena aipatzen entzun. Baña bere-ala jasotzen aste arren esan dizut, astirik galdu gabe.

Auek dituzu nere zuzenbideak :

Jose Luis Alvarez Empananza

Ehos. Iturrino, 23, 4º - San Sebastián.

Zure berrien zai naukazu ortaz oraindanik. Geiago luzatu gabe "Herria" jasotzen asi al ba nendi, arras poztuko nintzake.

Gañerantzean, zer moduz emengo berriak argitaratzeko zure asmo zaarra ? Batzuetan ikusi izan ditut, baña beste askotan ez. Eta , emengo irakurleai eragiteko batipat, oso egokia iruditzen zait.

Zure esanetara

JL Alvarez Empananza

JL Alvarez

Institución A. Joseph - HAZPARRE.

Hazparre, 1961 eta Urtharilaren 12an.

A. Laffitte jaunari.

Agur :

Hemen nauzu, Hazparre'n. Espainia'tik alde egin dut azkenean, hango libertatearen falta eta arriskuak denbora gehiagotan egin jasarik. Orain "Consejo de Guerra" baten zai nintzan, eta johan egin naiz.

Biziki eta bitortzek eskertzen dizut "Herría" zure kasitak nire alde egindako lana. Anbuz esker.

Handik iges eginda ere, euskeraren alde zurbait egin dezakezan uste dut: izkiriatsari es diot utziteko, ez, Jaungoikoa laguen.

Zer nahitarako, hortaz, nire hunata adierazi

nahi nizan jakin-erazi. Orain badakizu.

Hemendik aitzinat, beraz, igor egaitzazu hura
"Herria", eta ez Donostia'rat. Hastapenean duzu nire
adreza herria.

Zubaitetan laguntza ditzazuket, badakitezun, zure
esamutara nautzazu.

Agur, berria, eta ikus artio

Txillardegi

Baiona, 1971-ko Otsailaren 16

A1/28

Aita Laffitte-ri,

Agur :

San Martinek gutun luze bat igorri dit Gipuzkoa-tik , eta denen berri ematen ere bai .

"Aditza"ren afera zure eskuetan uztea erabaki dela azaltzen dit ; baita Baiona-ko Bulegoaren berria aipatzen .

San Martin-ek azaltzen duenez, berboaren batasunaren arazoa Baiona-tik eramatea nahi dute, zure zuzendaritzapean . "Aditzaren Batzorde"an ba nago ni ere . Eta, hitz batez, zuri laguntzeko gertu nagoela esan beharrik ez dago.

Lehenago egunean afera honetaz mintzatu ginenean , zuk proposatzen duzun bidea arras bidezkoa iruditzen zait : errazetatik zailletara joatea . Euskaltzaindia-ri nik orain dela hilabete batzuk igorri nion Txostenean, gauza berbera proposatzen nuen . Guztiz ados naiz, beraz ; eta hasteko gertu ere bai.

Gauza hauetan "demokrazia-bidetan barrena" abiatu behar ez dela iruditzen zait. Problema hauek teknikoak , eta gehienentzako aspergarri izanik ; San Martin-ek proposatzen didanari ongi deritzat : zure proposamenduen kopia batzuk egin , ez anitz, eta "BATZORDE" horretako lankideei bidali, gero geurea eta arrapostu horiek batera Euskaltzaindia-ri eramanez .

Ene ustez on litzake "NOR" hutsa duten aditz-laguntzailletik has-tara (naiz, nintzen , nadin, nendin, naiteke) ; eta gero , sailka, zailgo-tara igarotzea : NOR/NORI (natzaio, nintzaioke, lekidake, eta abar) ; geroa-go NOR/NORK delakoak (dut, nauzu ; nuen, gintuen ; eta abar) ; eta gero NOR/NORI/NORK dutenak (dizut edo derautzut, dit edo deraut, eta abar) .

Nahi duzunean has gaitzke . Zabalketaren lana nihaurk egin dezaket : horretan gelditu naiz San Martin-ekin.

Zure berrien zai, beraz ,

J. Gardey

*anabaldetean
hemen nauzu*

EUSKAL ELKARGOÁ
4, Rue des Lisses
64 - BAYONNE
Tél. 25.08.02
adresse provisoire

Hendaia, 1975/XII/17

A/25

A.P. Lafitte-ri,

Agur jauna,

Orain dela hiruzpalau urte, Baio
na-ko Euskal Enakustokian, grama-
tikari buruzko ikasaldi batzu eman
zenituen. Eta, ongi eroitzen naiz,
oso onar zehatzak egin zenituen

BAT \neq -A] problemaz. Hau da,

behar ez den askotan erabiljen
direla bai "BAT" eta bai "-A" arti-
kulua.

Zorigaitzez, orduan hartu ni-
tuen notak galduak ditut.

Ene galdera hauxe da: uste
duzu zuk "that is a book" esaldia
euskaratzeko, "hau liburua BAT da"
itzuli behar dela? Eta era berean:

"That is a door" → Hori ate BAT da
"That is a wall" → (Hura horma BAT da.
Eta abar.

Espaneraz eta frantsesez, noski, "nigri-
piant" bakar bat dute (un, uno) bi "nigri-
piá" horientzako = numerala eta artike indifini.
Guk, beriz, bi = "-A" eta "BAT" (edo "-BAT",
nabiarago baduzu); inglesaz bezala.

Oker ez banago zure ustez gehie-
gitan erabiltzen da "BAT" hori. Eta
nik ere (problema hau ez dut aztertu, dena
dela), nahiz Axular-en izkribuan ere
nahaspina ikusi, BAT-en erabilkera mu-
gatu behar litzatekeela uste dut.

Uste duzue, hitz batz, "this is
a dog" itzultzeko "hau zakorra da"
ongi dela?

Makinaz itzoriatu nahi nizan;
baina konpontzen ari dira. Barka
ene letra kaxkara.

Mila esker aldeaz aurretik.
Eta EGUERRI ON! Txillardeus)

Hendaia, 1975ko Abenduaren 18

A. Lafitte-ri,

Agor berriro :

Neure lan honetaz ari nantzelarik
 (BAT eta -A honi buruz), hau ikusten nuen:

	démonstratif = défini	in défini ~	numéral
anglais	THE	A(N)	ONE
euskara	-A	←	BAT
esp.	EL LA		UN(O)
français	LE LA		UN(E).

Badirudi BAT hitzak gero eta seman-
 tika-hedadura ZABALAGOIA hartzen duela ; eta, zubereraz gertatzen dena kontu-
 tan hartuta, BAT numeralak ez balitz
 bezala. Aiez, Sanskritozko "eka" honi
 eta euskal "eka" kakoa balira bezala.

Hon batez badirudi hau jela haserian

Demonstr.	Judizim	1
-A	BAT	EKA

eta EKA galtzean, eskuin aldean jaman dardela beste bat:

Demonstr.	Judiz.	1
-A	BAT	

eta orain, erdararen eraginez:

	Dij.	Judiz. = num.
esp. francés	EE LA	UN(O)
	LEB LA	UN(E)
	-A	BAT

Hots, hau gutxi idatzia duzu jak ere, nire baino lehenago: (Fontes Linguae Vasconum - IV, 12 (1972), 293/297). Jure artikulua kontutan hartuta dut, biaz, neure "Sustrai Bila II"an. - JKus arto Txill

JOSE LUIS ALVAREZ ENPARANTZA
INGENIEUR
3, RUE DES LAURIERS
TEL. 26.77.84
64700 - HENDAYE

Hendaia, 1976/v/20

Aita Laffitte-ri,

Agur =

Balegoke gauza askori
buzuz zer erranik. Zorigaitzez
ez zaitut aspaldi honetan iku-
ri, eta nondik has ez dakit.

Badakikezu zertan na-
hilen : « Linguistique » ari bai-
nauzu egiten Sorbonan. Lantxo
(apal) bat igorri nion lehen-
goran Villasante-ri ; eta hor
nunbait agertuko dela dirudi.

« BAT » en arazoa utzia dut
oraingoz ; baina zure lagun-
tza baliatuko dut, jakina, baita
aipatuko ere ene "Sustrai Bila"

ren bigarren partea agertuko delarik.

Gaur galdere bat egin behar dautzut = zull badaukazu hor, zure liburuen artean, Antoine Meillet-en "Linguistique Historique et Linguistique Générale", Lehenengo liburua? Berehalako behar nuke, eta ez Baionan ez Bordalen ez dut atxeman. Noki: uzteko eskatuko nizuke, eta berehala itzuliko nizuke.

Campion-en Gramatika ere hemen dut; eta eramanen dautzut.

Meillet-ena baldin badaukazu, neu pasako naiz liztari-tzetik, zure erranik ez, Xeka. Zure erantzunaren jai Villard?

Donosti Zarra, 11, 3°

Jose Luis Alvarez Empanza
Txillardeg
DONOSTIA

Donostian , 1977-ko Irailaren 5

11/26

A.P.Lafitteri ,

Agur jauna ,

Orain dela zenbait urte, sei edo zortzi beharbada, Baiona-ko Euskal Erakustokian egin zenituen hitzaldi batzu ; eta zure mintzagaia hau zen : Euskal Gramatika Estrukturala-ren hastapenak, edo horrelako zerbait . Ez dakit batere N'Diaye edo gogotan izan zenuenez ; hartu nituen notak ere , zoritxarez, galduak ditut .


Orain , Lezea-ren proposamendua dela-ta, euskararen "euskal gramatika" bat egin behar dut ; eta, hain zuzen, Ibon Sarasolak ere idarokitzen duenaren arabera, "distribuzionalismoz" edo bilatu beharko ditut gure egiazko hizkuntz-egiturak eta abar . Ez dakit batere zer lortuko dudan ; baina saio bat bederen egitekotan nago .

Ezer baldin baduzu honetaz, eta utzi nahi baldin baididazu, jakina , oso lagungarri gertatuko litzaidake .

Ba dakit, besteak beste, gure laguna den Pierre Xarriton zeure alboan duzula, eta Leizarraga ari zaretela aztertzen jo-ta-ke. Atxik !

Ni hemen, beti bezala, anitz saltsatan, gehiegitan arauz ; baina nondik ebaki ?

Zure berrien zai, eta zure zerbitzuko ere



txillardeg

U. Z. E. I.

UNIBERTSITAL ZERBITZUETARAKO EUSKAL IKASTETXEA

K/ Esterlines, 8

DONOSTIA

7/24

P. Lafitte

USTARITZE-64

Donostia, 1978ko Maiatzaren 26.

Agur lankide hori,

Ohartua zarenez, urrunsko gelditu da Maiatzaren 10-a (zeure idazkizuna hel erazteko muga, alegia); baina zai gaude oraindik.

Dakizunez, U.Z.E.I.-k bere burua zuzenetsi ko badu, Hiztegi-en lan hau bete behar du aurtan, agindua duenez.

Ba dakigu lanez leporaino sartuta zaudela, alor honetan ari garen guztiok bezala; eta alde zuretik e saten dizugu dena ulertzen dugula.

Gure eginkizuna bete ahal izateko, ordea; eta U.Z.E.I.-ren beraren konfiantza-giroa azkartzeko ere, o-toi, zeure lana ahal den azkarrenik bidaltzea eskertuko genizuke. Lehenengo mailako artikulua guztiak hemen izan arte, erdi geldirik baitago Hiztegi honen prestakuntza.

Zure lanaren zai gaituzu, hortaz.

Aurki jasotzeko esperantzan

Txillardegia.

Agur Aita Lafitte:
Barba zazu honela
yogoraztea. Baina beran-
tegi ari gara jadanik.

